

## Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2016ko irailaren 26tik irailaren 30erako astea

---

### ➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...


### ➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

### ➤ **GURE IKUSPEGIA**

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROPA: IFO



### Datuaren analisia

Alemaniako enpresen konfiantza-indizea (IFO) analistek uste zutena baino gehiago hazi zen; hazkunderik sendoena 2014. urtetik. Hobekuntzak nabaritu baitziren bi osagaietan, gaur egungo egoeran zein aurreikuspenetan. Datu horren arabera, enpresaburu alemaniarrak ez zeuden hain kezkatuta ekonomiaren bilakaera orokorraz eta 'Brexit'-aren aldeko bozaren ondorioez.

### Adierazlearen azalpena

Enpresa-giroaren Indize alemaniarra (IFO) adierazle garrantzitsua da, inbertitzaileek Alemaniako jardura ekonomikoan duten konfiantza-maila neurtzen baitu. IFO Institutuak argitaratzen du hilero. Enpresetako 7.000 exekutibori baino gehiagori egindako inkesta batetik bildutako datuetan oinarritzen da, gaur egungo eta etorkizuneko ekonomiaren egoerari buruzko galderak barne hartzen dituena. IFO indizeak lotura oso estua dauka Industria Ekoizpenarekin, eta, horrenbestez, BPGd-ren bilakaerarekin (lehenago argitaratzen denez, bilakaera aurreratu daiteke).

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROPA: KPI



### Datuaren analisia

Aste horretan ezagutu genituen KPIaren zenbait datuen argitara, inflazioak gorakada txiki bat izan zuen. Iazko datuak atzean uztearen ondorio garbia izan zen igoera hori. Gainera, horrekin batera, urte arteko KPIa igo zen. Horiek horrela, Espainiako KPIaren urte arteko zenbatespenak lau hamarren egin zuen gora, % 0,3ra (urtekotua) iritsi arte; datu positiboak lortzen zituen lehen aldia 2015eko uztailetik. Gorakada horren arrazoia erregaien eta elektrizitatearen prezioaren igoera izan zen. Halaber, Alemaniako inflazio harmonizatua % 0,3tik % 0,5era igo zen irailean, energiaren prezioek eraginda.


### Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen du Eurostat/Europako Banku Zentralak. Europako etxeek kontsumitzen dituzten oinarriko zerbitzu eta ondasunen multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### AEB: KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZA



#### Datuaren analisia

Kontsumitzailearen konfiantza, Conference Board erakundeak balioetsitakoa, 101,8tik 104,1era igo zen irailean, uste baino askoz hobeto; 99ra jaitea espero baitzen. Ustekabeko gorakada horri esker, beraz, azken bederatzi urteotako maximoetara iritsi zen, lan-merkatuaren egoerari buruzko familien iritzi positiboaren ondorioz. Inkestan parte hartu zutenen % 15,1ek hurrengo sei hilabeteetan enpleguak gora egingo zuelako ustea zuen, eta % 27,9ek azpimarratu zuen lanpostu ugari zegoela eskuragarri. Kontsumitzailearen konfiantza neurtzen duen beste adierazle batek, Michiganeko Unibertsitatekoak, hobekuntza hori bera islatzen zuen, baina bien arteko aldea handiagoa zen.


#### Adierazlearen azalpena

Estatu Batuetako kontsumitzailearen konfiantza neurtzen duen adierazle ekonomikoa da, hau da, kontsumitzaileen gastua aurreratzen duen adierazlea da. The Conference Board erakundeak 1967az gerortik hileroko argitaratzen duen indizea da, eta Estatu Batuetako 5.000 familiei egindako inkesta batean bildutako datuetan oinarritzen da. Inkesta horretan, enpleguaren eta negozioaren (norbere konturako langileen kasuan) gaur egungo egoerari eta datozen sei hilabeteetarako aurreikuspenei buruz galdetzen zaie, baita familiarren diru-sarrera guztiei buruz ere. Kontsumitzailearen konfiantza altuak hedapen ekonomikoa sustatuko du, baina baxua bada, hazkunde ekonomikoaren uzurdura eragingo du.

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### TXINA: PMI MANUFATURA-INDIZEA ETA CAIXIN



#### Datuaren analisisia

Caixin PMI indizea dezima bat igo zen irailean, 50,1era arte (balio maximoa uztailetik), manufaktura-sektorearen berreskurapenaren adierazgarri garbia. Izan ere, iaz, indizea 47,2 puntutan baitzegoen. PMI manufaktura-indize ofizialak, halaber, joera berdina erakutsi zuen. Irailean tinko mantendu zen (50,4 vs 50,5 eta 50,4 aurrekoa). Eskari berriek beherakada txiki bat izan zuten arren, ekoizpena bi puntu igo zen. Bestalde, esportazio eskariak gorako joera hartu zuten, lehen aldiz maitzetik. Azpi-indize horiek, labor esanda, barne-eskariaren egonkortasuna eta kanpo-eskariaren joeraren lehen zantzuak erakutsi zituzten.

#### Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura-indizeak hileroko eraketan profesionalak eta enpresetako exekutiboak manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale.

# INGURU MAKROA

## KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus.
10/03	Japonia	PMI Nikkei fab Japonia	--
10/03	Espainia	Markit PMI fabrikazioa Espainia	51.5
10/03	Italia	Markit/ADACI Italia fabrikazioa PMI	50.3
10/03	Frantzia	Markit PMI fabrikazioa Frantzia	49.5
10/03	Alemania	Markit/BME Alemania fabrikazioa PMI	54.3
10/03	Eurogunea	Markit Eurogunea fabrikazioa PMI	52.6
10/03	Erresuma Batua	Markit UK PMI Manufacturing SA	52.1
10/03	Estatu Batuak	Markit AEB fabrikazioa PMI	51.4
10/03	Estatu Batuak	Hileko gastua eraikuntzan	% 0.3
10/03	Estatu Batuak	ISM manufaktura-indizea	50.3
10/04	Japonia	Kontsumitzailearen konfiantza-indizea	41.5
10/04	Espainia	Hileko langabezia-tasa	23.3
10/04	Eurogunea	Hileko ekoizpenaren prezioen indizea	-% 0.1
10/04	Estatu Batuak	ISM New York	--
10/05	Japonia	PMI Nikkei zerbitzuak Japonia	--
10/05	Japonia	PMI Nikkey composite Japonia	--
10/05	Espainia	Markit PMI zerbitzuak Espainia	54.6
10/05	Espainia	Markit PMI Composite Espainia	53.8
10/05	Italia	Markit/ADACI Italia zerbitzuak PMI	52.0
10/05	Italia	Markit/ADACI Italia Composite PMI	51.5
10/05	Frantzia	Markit Frantzia Zerbitzuak PMI	54.1
10/05	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	53.3
10/05	Alemania	Markit Alemania Zerbitzuak PMI	50.6
10/05	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	52.7
10/05	Eurogunea	Markit Eurogunea Zerbitzuak PMI	52.1
10/05	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	52.6
10/05	Erresuma Batua	Markit PMI Zerbitzuak Erresuma Batua	52.2
10/05	Erresuma Batua	Markit PMI Composite Erresuma Batua	52.3
10/05	Eurogunea	Hileko xehekako salmentak	-% 0.3
10/05	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
10/05	Estatu Batuak	ADP Enplegu aldaketa	163k
10/05	Estatu Batuak	Balantza komertziala	-\$39.2b
10/05	Estatu Batuak	Composite ISM ez manufaktura-sektorea	53.0
10/05	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	% 0.0
10/06	Alemania	Markit PMI eraikuntza Alemania	--
10/06	Eurogunea	Markit Eurogunea xehekako merkataritza PMI	--
10/06	Eurogunea	EBZren bileraren aktak	0
10/06	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	255k
10/07	Alemania	Hileko SA MoM industria-ekoizpena	% 1.0
10/07	Frantzia	Balantza komertziala	-3850m
10/07	Frantzia	Hileko industria-ekoizpena	0.6%
10/07	Espainia	Urte arteko NSA industria-ekoizpena	--
10/07	Erresuma Batua	Hileko industria-ekoizpena	% 0.1
10/07	Erresuma Batua	Balantza komertziala	-£4000
10/07	Estatu Batuak	Langabezia-tasa	% 4.9
10/07	Erresuma Batua	NIESR BPGd-aren kalkulua	--
10/07	Estatu Batuak	MoM handizkako inbentarioak	-% 0.1
10/07	Txina	Txinako PMI zerbitzuak Caixin	--

# ASTE HONETAN MERKATUETAN

## BURTSAK

Hegakortasun handiko astea izan zen, eta finantza-sektorea izan zen ziurgabetasun-gune nagusia. Deutsche Bank erakundearen kaudimenari buruzko zalantzak Europako indizeei kalte egin zien, AEBk 14.000 milioi dolarreko isuna jarri nahi baitio hipoteka-papera merkaturatzeagatik. Merkatuaren espekulazioen arabera, erakundeak kapital-zabalkuntza bat edo gobernu alemaniarraren erreskatea behar zuen, nahiz eta gobernu horren kontra egon. Horiek horrela, bankuaren kotizazioak % 8ko baino gehiagoko beherakada izan zuen bi burtsa-saiotan. Ostiralean, baina, egoera zertxobait lasaitu zen, isunaren zenbatekoa 5.400 milioi dolarretara murrizteko akordio posible baten aurrean. Deutsche Bank-en portaerak sektore osoari eragin zion, hain zuzen, % 1 galdu zuen aste horretan. Horren ondorioa, gainera, Europako indize garrantzitsuenen emaitzetan ikusi zen (antzeko galerak izan zituzten). Petrolio gordinaren ekoizpena mugatzeko LPEEren hitzarmenak eta Amerikako hauteskundeetako eztabaidan Clintonek lortu zuen garaipenak eragin positibo txikia izan zuen. Amerikarrek, ordea, egoera hobeto aprobetxatzen jakin zuten, eta astea igoera arinekin amaitu zuten, kontsumitzaileen konfiantzaren datu onak lagun. Japoniak eta herrialde gorakorrek, oro har, galerak izan zituzten.

## ERRENTA FINKOAK:

Burtsan piztutako izuak zorraren erosketak sustatu zituen, une batez AEBetako interes-tasa ofizialen igoera prozesua alde batera utziz. Yellenek Estatu Batuetako kongresuaren aurrean eskaini zuen hitzaldian "prozesuari pixkanaka-pixkanaka aurre egiteko" gonbita egin zuen, "nahiz eta aurrez zehazturiko egutegirik ez egon". Mezu horrekin ere, bonu amerikarraren errentagarritasuna oinarritzko 2 puntu jaitsi zen, % 1,59raino. Europan, bestalde, 10 urterako bonu alemaniarrak balio negatiboak utzi zituen, -% 0,12rainokoak. Zor periferikoak ere erosketei etekina atera zien. Bonu espainiarraren errentagarritasuna % 0,88ra jaitsi zen. Kreditua, azkenik, arinki tenkatu zen.

## DIBISAK/LEHENGAIK:

Europako finantza-sektorearen ziurgabetasunak eraginda, euroa/dolarra truke-tasa hegakorra izan bazen ere, ia aldaketarik gabe amaitu zuen astea: 1,12 dolar/euro. Gainerako truke-tasetan ere aldaketa gutxi. Bestalde, eguneko ekoizpena 32,5 milioi barriletara mugatzeko (eguneko 33,25 milioiren aldean), LPEE erakundeak kideek ustekabearen izenpetu zuten hitzarmenak petrolio gordinaren prezioa % 6 baino gehiago igo zuen. Nolanahi ere, hitzarmenari begira-begira jarraitzen du merkatuak, oraindik ez delako herrialdeen arteko banaketa-kuotarik ezarri.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	% Ald 2016
MSCI WORLD (Local)	1.306,85	-0,25	2,28
IBEX 35	8.779,40	-0,50	-8,01
DJ EURO STOXX 50	3.002,24	-0,99	-8,12
DJ STOXX 50	2.843,17	-0,92	-8,29
FTSE	6.899,33	-0,15	10,53
S&P 500	2.168,27	0,17	6,08
Dow Jones	18.308,15	0,26	5,07
NASDAQ	5.312,00	0,12	6,08
NIKKEI 225	16.449,84	-1,82	-13,58
MSCI EMERGENTES (Lo)	48.547,82	-1,53	9,14
MEXBOL	47.245,80	-1,11	9,93
BOVESPA	58.367,05	-0,56	34,64
SHANGHAI	3.145,17	-0,97	-15,09
Rusia Rts Moscú	990,88	-0,31	30,89

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	% Ald 2016
ALEMANIA 2 URTE	-0,68	-0,01	-0,34
ESPAINIA 2 URTE	-0,22	-0,01	-0,22
AEB 2 URTE	0,76	0,01	-0,29
ALEMANIA 10 URTE	-0,12	-0,04	-0,75
ESPAINIA 10 URTE	0,88	-0,09	-0,89
AEB 10 URTE	1,59	-0,02	-0,68
ALEMANIA 30 URTE	0,45	-0,04	-1,04
ESPAINIA 30 URTE	1,99	-0,08	-0,99
AEB 30 URTE	2,32	-0,03	-0,70
<b>Kreditu-spreada (op)</b>			
MARKIT ITRX EUROPE 12/21	72,59	1,87	-4,68
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/21	332,50	7,78	17,88

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2016
Dolarra / Euroa	1,12	0,12	3,44
Yena / Euroa	112,93	-0,06	-13,54
Libera / Euroa	0,87	-0,05	17,37

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	2016ko % Ald
Petrolio (Brendt)	47,71	6,35	33,45
Urrea	1.315,75	-1,64	23,96

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.